



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

Idazketa aberasteko Edmodo plataforma digitala

Egilea

Haize Etxeandia Palacio

Zuzendaria(k)

Abel Camacho

Mikel Iruskieta



2019

Laburpena

Egungo ikasleek duten idazteko gaitasun mailari erreparatuz eta trebetasun honen didaktikaz hausnartuz, teknologiak irakaskuntzan izan dezakeen erabilera positiboa baloratzea da abiapuntua. Horregatik, lan honek hizkuntza ekoizpenaren, zehazki idazmenaren, eta komunikazio teknologien erabileraren arteko uztartzea zein neurritan eman daitekeen aztertzea du helburu. Horretarako, 2018-2019 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikasleekin narrazio testuen idazketa lantzeko egin da esku-hartzea, ikasgela birtualak aurrez aurreko klaseen osagarri bihurtuta, ikasleek idazmenarekiko motibazioa eta jarrera aldatze aldera. Egindako esku-hartzearen balorazioa, aurten Edmodo LMSa idazketarako baliatu duten irakasleei egindako inkesta bidez egin da. Aipatzekoak dira inkesta horretan jasotako balorazio positiboak, ikasgela birtualen erabilerak ikasleen jarreraren, idazmenean zein lan kooperatiboan izan ditzakeen aukerak eta onurak azpimarratuz.

Jasotako emaitzak oinarri izanik, hurrengo ikasturterako (2019-2020) sekuentzia didaktikoaren proposamena egin da. Idazmena, prozesu isolatu bat bezala ulertzetik harago, komunikazio eta kolaborazio ekintza bezala ulertzeko, IKTek prozesu horretan izan ditzaketan aukerak aztertuko dira.



Lan hau Aitortu - EzKomertziala - Berdin Partekatu (BY-NC-SA) lizentziapean dago. Honen arabera, lan originalaren eta izan daitezkeen lan eratorrien erabilpen komertzialik ez da baimentzen eta lanen banaketa lizentzia berberarekin egin beharko da, beti ere, egilea aipatuz.

Gaien aurkibideak

| | |
|---|----|
| Laburpena | 2 |
| 1. Sarrera | 7 |
| 2. Marko teorikoa | 9 |
| 2.1. Idazmena | 9 |
| 2.1.1. Hizkuntza ekoizpena | 9 |
| 2.1.2. Idazmenaren didaktika | 10 |
| 2.1.3. Idazmenaren lanketa markoa | 11 |
| 2.1.4. Testu-mota: Narrazioa | 12 |
| 2.2. Teknologiaren ekarpenak idazmenaren lanketan | 17 |
| 2.2.1. Ikasgela birtualak aurrez aurrekoaren osagarri | 17 |
| 2.2.2. Edmodoren aukerak | 17 |
| 2.2.3. Erabiltzaileen rola | 21 |
| 3. Metodologia | 23 |
| 3.1. Lehenengo proiektua: Ipuin lehiaketa | 23 |
| 3.1.1. Ipuinen irakurketa eta ulermena | 24 |
| 3.1.2. Ipuinen ezaugarri eta egituraren azterketa | 24 |
| 3.1.3. Ipuinen ekoizpena | 25 |
| 3.2. Bigarren proiektua: Grezia eta Erroma | 32 |

| | | |
|--------|--|----|
| 3.2.1. | Kondaira eta mitoen irakurketa eta ulermena | 32 |
| 3.2.2. | Kondaira eta mitoen ezaugarri eta egituraren azterketa | 33 |
| 3.2.3. | Mitoen ekoizpena | 34 |
| 3.3. | Edmodoren erabileraren balorazioa | 36 |
| 4. | Lortutako emaitzak | 38 |
| 5. | Sekuentzia didaktikoa | 46 |
| 5.1. | Narrazioak lantzeko jarduerak | 46 |
| 5.2. | Ikasgela birtuala: Edmodo | 50 |
| 6. | Ondorioak | 52 |

[Bibliografia](#)

Irudien aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1. irudia: Edmodore aukerak | 18 |
| 2. irudia: Taldeko hasierako-egoerak | 25 |
| 3. irudia: Ramon Rubial lehiaketa | 26 |
| 4. irudia: Ramon Rubial irabazlea 2018 | 26 |
| 5. irudia: Ipuinaren zeregina | 27 |
| 6. irudia: Ipuina idazteko baliabideak I | 28 |
| 7. irudia: Ipuina idazteko baliabideak II | 28 |
| 8. irudia: Hasierako egoera azalpena | 29 |
| 9. irudia: Ikasleen iruzkinak | 29 |
| 10. irudia: Arazoak eta ekintzak I | 30 |
| 11. irudia: Arazoak eta ekintzak II | 30 |
| 12. irudia: Oharra I | 31 |
| 13. irudia: Oharra II | 31 |
| 14. irudia: Mitoa eta kondaira baliabideak I | 32 |
| 15. irudia: Mitoa eta kondaira baliabideak II | 34 |
| 16. irudia: Mitoa zeregina | 35 |
| 17. irudia: Kalifikazioa eta iruzkinak | 38 |
| 18. irudia: Ikasle berrikusketak I | 39 |
| 19. irudia: Ikasle berrikusketak II | 40 |
| 20. irudia: Ikasle berrikusketak III | 40 |
| 21. irudia: Ikasle berrikusketak IV | 41 |
| 22. irudia: Irakaslearen iruzkinak | 41 |
| 23. irudia: Edmodo balorazioa I | 42 |
| 24. irudia: Edmodo balorazioa II | 42 |
| 25. irudia: Edmodo balorazioa III | 43 |

| | |
|--|----|
| 26. irudia: Edmodo gelan I | 43 |
| 27. irudia: Edmodo gelan II | 43 |
| 28. irudia: Edmodo gelan III | 44 |
| 29. irudia: Edmodo eta idazmena I | 44 |
| 30. irudia: Edmodo eta idazmena II | 44 |
| 31. irudia: Edmodo eta idazmena III | 45 |
| 32. irudia: Edmodo eta idazmena IV | 45 |

1. KAPITULUA

Sarrera

Gaur egungo ikasleek ez dakite idazten edo ez daude ohituta esaldi bat baino luzeagoa den testua idaztera. Hainbeste ordenagailu eta lpad gero idazten ez jakiteko.

Zenbat aldiz entzun dugu irakasleok, are gehiago hizkuntza irakasten dugunok, lelo bera behin eta berriro. Badirudi hezkuntza tradizionalak gaur egungoari ez diola ezer zor eta hori gutxi balitz, gauzak hobeto egiten zirela gaur egungo teknologiarik gabe. Baina benetan berrikuntzetan edo teknologian daude gure egungo ikasleek duten idazketa gaitasunaren mailaren arrazoi eta faktoreak?

Hautatzen diren bide eta moduetan dago gakoa eta bide horiei lotutako proposamenari heldu nahi zaio lan honetan; hau da, hizkuntza konpetentziaren baitan, idazketari eman beharreko bidea dela IKTek eskaintzen dizkiguten baliabideak ikasle eta irakasleen esku jartzea.

Ezin uler daiteke idazketa prozesu isolatua bezala, irakasleak agindutako egiteko soil bat bezala. Idazketa, oro har, komunikazio bidea da eta horregatik, komunikazioa eta interakzioa bermatu beharra dago ikasleen artean ikas-emaitzak bestelakoak izateko. Idazketa prozesuan beharrezkoak dira irakurketa, elkarlana, zuzenketa eta berrikusketak, ataza bakoitzean ekoiztutako hori ulergarria izateko eta ataza horiek duten funtzioa betetzeko. Horretarako, IKTak eta baita ikas-plataformak ere lagungarriak izan daitezke beste hainbat plataforma digitalen artean, esaterako, Edmodo plataforma.

Lan honen helburua da Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek Euskara eta Literatura ikasgaien narrazio-testua lantzea ikasgela birtuala (Edmodo) aurrez aurreko saioen osagarritzat hartuz idazmena lantzeko. Egindakoa ebaluatzeko, ikasgela birtualean egindakoa baloratu da irakasleek erantzundako inkestetik ateratako emaitzekin. Emaitzei dagokionez, balorazio positiboak gailendu dira eta ikasgela birtualen erabilerak ikasleen jarreran, idazmenean, zein lan kooperatiboan izan ditzakeen aukerak eta onurak azpimarratu dira.

Bukatzeko, aurtun izandako esperientzia kontuan izanik datorren urtean narrazioa lantzeko Edmodorekin inplementatzeko asmoa den sekuentzia didaktikoa proposatzen da.

2. KAPITULUA

2. Marko teorikoa

Marko teorikoan, idazmena den hizkuntza trebetasuna lantzeko oinarriak azalduko dira. Lehenik eta behin, idazmena zer den azaldu eta honen didaktikari buruz arituko da, hezkuntza dekretuari (HEZIBERRI 2020) erreferentzia eginez. Honez gain, narrazio testu-motaren lanketarako oinarriak aipatuko dira. Azkenik, idazmenaren lanketan teknologiak, eta zehatzago ikasgela birtualek idatzizko ekoizpenari egin diezaioketen ekarpenak aipatuko dira.

2.1. Idazmena

Idazmena, idatziz egiten den hizkuntza ekoizpenari deritzo, hau da, edozein komunikazio egoeran, idatziz egiten den bideari.

2. 1. 1. Hizkuntza ekoizpena

Hizkuntza ekoizpena mintzamina eta idazmenari lotua doan kontzeptu gisa ulertu izan da beti, eta kontrara, irakurmena eta entzumena hartzaileak jasotzen duen trebetasun gisa. Baina, nahiz eta lau trebetasun horiek identifikatu, berezi eta sailkatu, denak doaz eskutik, hau da, batak bestearengandik behar dute hizkuntza ekoizpenerako.

Hizkuntza ekoizpenean, hiru fase nagusi bereizi izan dira (Richards et al.,1992: 336):

1. Konstrukzioa: hitz egin edo idatzi nahi duenak, egoera komunikatibo batean nahi duena adierazteko proposizioak sortzen ditu.

2. Artikulazioa: esan nahi dena linguistikoki kodifikatzen da.
3. Burutzea: mezua jasotzeko moduan adieraztea hitzez edo idatziz.

Esan bezala, aipatutako trebetasunek, badute bere eragina beste trebetasunetan eta horren adibide garbia da idazmena edo idazteko gaitasuna. Idazmena oso konplexua den prozesua da eta beste trebetasunek zuzeneko eragina dute idazketan. Ulermena (ahozkoa zein idatzizkoa) eta mintzamenak, erlazioa dute idazketarekin eta, ondorioz, idazmena behar bezala lantzeko hauek ere kontuan izatea guztiz beharrezkoa da.

Horrez gain, idazketa prozesuak ere bere barnean beste hainbat ekintza uztartzen ditu. Idazketa planifikatzerako orduan, hainbat faktore izan behar dira kontuan (testuingurua, komunikazio-egoera, ideien antolaketa eta ipuin-egitura) eta horiek denak kontuan izanda, hitzez modu zuzenean adieraztea.

2. 1. 2. Idazmenaren didaktika

Idazketaren didaktikarako Cassanyk (1990) lau ikuspegi didaktiko zehazten ditu:

- i) Planteamendu gramatikala.
- ii) Planteamendu funtzionala.
- iii) Prozedurazko planteamendua.
- iv) Edukizko planteamendua.

Lau ikuspegi horiek aztertuta, Cassanyk (1990) dio, arestian aipatutako idazketarako faktoreak, hein handi edo txikiago batean, lau ikuspegi-didaktiko horietan lantzen direla eta aldea planteamendu bakoitzak oinarrian duen enfoke eta indargunean dagoela. Hortaz, baten aldeko apostua egitea ez litzateke egokia izango besteak alde batera utziz gero. Aitortzen du planteamendu gramatikala izan daitekeela tradizioz erabiliena eta zaharkitua egon daitekeena, eta beste hirurek ikuspegi moderno baten ondorio direla. Baina azken finean, planteamenduen arteko nahasketa egokian egon liteke arrakasta.

Cassanyren (1996) arabera, esandakoaren haritik, idazmenaren didaktikak garapen eta eboluzio bat izan du eta garai bateko praktikak guztiz aldatu dira. Eboluzio

horren adibide da, nola idazketan martxan ipintzen diren prozesu kognitiboek (ideien aukeraketa, antolaketa, garapena, idazketa eta berrikusketa) garrantzia hartu duten kode linguistikoaren (hizkuntzaren gramatika) erabilera zuzenaren aurrean. Helburua guztiz aldatuta, gramatika idazketarako beharrezko tresna da, baina ez da lehentasuna (Cassany, 1996). Hala ere, gramatika, hizkuntza ondo erabiltzeko tresna da eta argi dago ezin daitekeela alde batera utzi, hizkuntzaren oinarria gramatikan dagoelako. Baina, hizkuntza komunikaziorako tresna lez ulertuta, komunikazio horren baitan, ezin da gramatika izan maila goreneko alderdia. Esan bezala, hizkuntza-komunikazioan, beste aspektu batzuek ere badute bere garrantzia eta hortaz, gramatikarekin batera landu beharrekoak.

2. 1. 3. Idazmenaren lanketa markoa

Horrez gain, idatzizko komunikazioaren lanketa markoa zehazteko, ezinbestekoa da Heziberri (2020) EAeko hezkuntzarako dekretuak idatzizko komunikazioari buruz dioena kontuan hartzea. Hauek dira idatzizko komunikazioaren lanketarako zehazten diren atalak:

- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak.
- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak sortzea, aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz: pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.
- Planifikatu ondoren informazioa bilatu, testu bihurtu eta berrikustea, hainbat euskarritan idatzitako testuak sortzeko, lagunduta, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta.
- Teknika eta tresna digitalak erabiltzea, lagunduta, idatzizko testuak ulertu eta sortzeko.
- Hainbat helburu dituzten idatzizko harremanetan parte hartzea, sareko baliabideak erabiliz, errespetuz eta lankidetzan.
- Ikastetxeko liburutegia eta mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, lagunduta.

- Idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak erabiltzea, lagunduta, beste hizkuntzetan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusiak.
- Aurrez landutako idatzizko generoen ezaugarri nagusiak: helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Ikasturtean zehar landutako idatzizko genero digital berrien ezaugarriak.
- Idatzizko testua menderatzeak duen garrantzi pertsonalaz eta sozialaz ohartzea.
- Idazketa informazio- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezaguerak komunikatzeko modutzat.
- Idatzizko testuen edukiari buruzko gogoeta egitea.

HEZIBERRIn (2020) zehaztuta dauden azpiatalak asko dira eta oso modu orokorrean daude zehaztuta, baina aurretik aipatu dugunarekin lotuta dago zeharo. Idatzizko gaitasunean ez da soilik gramatika ondo baliatzea eta guztiz zuzena den idatzia ekoiztea, beste hainbat aspektu daude presente izan beharrekoak hizkuntza komunikaziorako konpetentzia dela ulertzen badugu.

2. 1. 4. Testu-mota: Narrazioa

Testu tipologiaren lanketari dagokionez, Adamek (1987) sailkapen honetan bereizitako testu motak hauek dira:

- **Narrazio testua**
- **Deskribapen testua**
- **Irakasbide testua**
- **Azalpen testua**
- **Argudio testua**

Dekretuan oinarrituz, Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloan, aipatutako testu-motetatik narrazioa da testu lanketan zehazten den testu-motetako bat.

Narrazioan arreta jarritz, Adamek (1987) narrazio testua definitze aldera, esan genezake, narrazioa testuinguru zehatz batean pertsonaia jakin batzuei gertatzen zaizkien ekintzen kontaketa da. Kontaketa hau errealia edo fikziozkoa izan ahal da. Bestalde, kontaketaz gain, tartean, deskribapena, elkarrizketa zein bestelako testu motak ere ager daitezke.

Egitura aldetik, hiru atal nagusi bereizten dira narrazio testuan: i) sarrera, ii) gertaerak, eta iii) bukaera. Hala ere, egitura hau ez da aldaezina, eta kontaketa aldaketak egin daitezke idazlearen asmoen arabera; hala nola, amaiera gabeko kontakizunak, ekintzen ordena aldaketa edo zatiren bat falta izatea erabaki dezake idazleak..

Narrazioak dituen elementuei¹ dagokienez, hauek dira narrazio testu bat osatzeko orduan kontuan izan beharreko elementuak:

a) Ekintzak edo argumentua

Narrazioaren nondik-norakoa da eta ekintza bakarra izan daiteke edo ekintza bat baino gehiago ager daiteke, ekintza bat delarik nagusia. Ekintza hauek benetakoak edo alegiazkoak izan ahal dira. Ekintza, istorio, pasadizo horien multzoak osatzen du narrazioaren argumentua.

b) Gaia

Kontaktak aditzera eman nahi duen mezua, ekintzen atzean idazleak duen idatz-asmoa da.

c) Narratzailea / Fokalizazioa

Istorioren kontaketa nork egiten duen zehaztu behar da. Narratzaile-orojakilea, narratzaile-pertsonaia edo narratzaile-lekukoa izan ahal da.

d) Lekua

Lekua narrazioaren osagai garrantzitsua da. Pertsonaiek nahita nahiezkoa dute espazioa, toki, ekintzak aurrera eramateko. Inguruak pertsonaien izaera, jokabide eta

¹ <https://elearning17.hezkuntza.net/015307/mod/book/view.php?id=2253&chapterid=30>

ekintzekin zerikusi handia izaten du. Narrazio motaren arabera, kontakizunaren haria leku bakar eta mugatua batean ala leku desberdin askotan gara daiteke.

e) Denbora

Kontakizuna gertatzen deneko garaia da denbora historikoa. Narrazioaren barruan bestelako denbora batzuk aipatu eta bereizi behar izaten dira:

- Fikzioaren denbora: Fikziozko gertakizunak noiz gertatzen diren, noiztik noiz arte (adibidez: protagonistaren jaiotzetik heriotzara artekoa).
- Narrazioaren denbora: narratzaileak noiz narratzen dituen. Berarentzat ekintza horiek iraganekoak, momentukoak ala etorkizunekoak diren.

f) Pertsonaiak

Ekintzan parte hartzen duten pertsonak edo izakiak (errealak edo alegiazkoak) narrazioko pertsonaiak dira. Narrazio batean pertsonaia guztiek ez dute garrantzi maila bera. Protagonismoaren arabera, pertsonaia nagusiak eta bigarren mailakoak izan ohi dira.

Nagusien artean, protagonista edo protagonistak ditugu. Honen edo hauen biran daude narrazioko gertakizunik nagusienak. Antagonistak ere izan litezke. Narrazioko arazo eta ekintzak korapiloa sor dezaten, norbait agertu behar zaio protagonistari bere helburu eta asmoetan aurka egiten: horixe da antagonista. Pertsonaia hauek narrazioaren haria aurrera eramaten dute.

g) Ahotsak

Ikuspuntu narratiboarekin zehazten da nork egiten duen narratzailearena. Narratzailea, kontakizunaren barnean dagoen ahots bat dugu: ipuin edo eleberriko istorioa kontatzen digun bitartekoa. Idazleak narratzailea erabiltzen du zerbait kontatzeko. Narratzailea egilearen eta narrazioaren arteko zubia da. Ikuspegiaren arabera hurrengo narratzaile mota hauek daude:

- Pertsonaia-narratzailea: Kontalaria kontakizuneko pertsonaia bat da, hau da, lehenengo pertsonan kontaktzen da istorioa. Narratzailea, autobiografikoa (protagonista) edo lekukoa izan ahal da.
- Narratzaile ez-pertsonaia: Kontalaria istoriotik kanpo dago; ez du ekintzan parte hartzen eta gertatutakoa hirugarren pertsonan kontaktzen du. Narratzaile hau orojakilea edo objektiboa izan daiteke.

h) Diskurtso motak

Narrazioa edo kontaketa bi eratara egin daiteke, estilo zuzenean edo zehar-estiloan. Lehenengoan, elkarrizketa bidez egiten da kontaketa; bigarreanean, aldiz, narratzailearen hitzek egiten dute kontakizuna.

i) Egitura

Narrazioan kontaktzen diren gertakariak batasuna izan behar dute eta ordena eta egituraketa egokiaz aurkeztu behar dira. Ekintza antolatzeko modu desberdin asko izan daitezke, baina gehienetan, hiru ataletan banatua aurkezten zaigu:

- Hasierako egoera: Idazleak protagonista bat aurkezten digu egoera jakin batean. Protagonista honek zerbait lortu nahi du, edo arazo bati konponbidea aurkitu nahi dio. Gerora etorriko diren beste ekintza edo gertakarien abiapuntua izango den lehen ekintza burutuko du. Abiapuntua emateaz gain, pertsonaia garrantzitsuenen, espazioaren, denboraren eta giroaren aurkezpena egiten du idazleak.
- Korapiloa: Atal honetan hasierako ekintzaren ondorioz sortutako ekintza eta gertakizunak kontaktzen zaizkigu. Apurka-apurka gertaerak kateatu ahala, kontakizuna indar ezberdin askoren arteko joko bihurtuko da tentsioa bere momentu gorenera iritsi arte. Korapiloaren garapena era askotara egin daiteke: gertakizunak bata bestearen atzetik kontaktuz, beste narrazio edo hari batzuk nahastuz, besteak beste.
- Amaiera: Atal honetan ekintza azken ondorioetara iristen da. Bukaerak kontakizunaren azken giltza ematen digu, testuaren azken esanahia argituz.

2.2. Teknologiaren ekarpenak idazmenaren lanketan

2. 2. 1. Ikasgela birtualak aurrez aurrekoaren osagarri

Dekretuak argi dakar tresna eta baliabide digitalak idazketan laguntza eskaintzeko bide direla. Ingurune birtualek aurrez aurrekoaren aukera ezberdinak eskaintzen dituzte ikasleen idazketa prozesu eta elkarlanerako baliagarriak izan daitezkeenak. Aurrez aurreko saioetan arrazoi ezberdinengatik eman ezin diren komunikazio bideak, elkarlana eta idazketa asinkronoa da ikasgela birtualek eskaintzen dutena. Esandakoaz gain, ikasleek konpetentzia digitala garatzeko bide bat ere bada, informazioaren eta edukien kudeaketa eta sorkuntzarako espazioa, lan kooperatiborako aukera eta komunikaziorako aukera eskaintzen duena.

Ikasgela edo hezkuntzarako plataforma digitalaren adibide bat da Moodle edota Edmodo hezkuntzarako plataforma digitala. Hurrengo lerroetan Edmodo plataforma deskribatuko da, plataforma hori erabiliko delako deskribatuko den metodologian.

2. 2. 2. Edmodoren aukerak


Edmodo irakaskuntzarako plataforma digitala da, doakoa eta segurua ikasle, irakasle eta ikastolentzat. Segurtasun hori, bertan parte hartzeko irakasleak sortzen duen pasahitz pribatuaren bidez bermatzen da.

Plataformaren erabilera oso intuitiboa da; izan ere, plataformak berak taldeak, datuak, zereginak eta kalifikazioak modu egituratu batean antolatzen ditu (*Learning Management System*, LMS). Zereginak edo edozein eduki, datu-basetik eskuratutakoak izan daitezke, baina horrez gain, igo edo gordetako dokumentu, artxibo, argazki, audio, argazki edota bideoen biltoki lez ere funtzionatzen du plataformak. Ikasleen kalifikazioak, koaderno digital batean kudeatzen dira. Gainera, erabiltzaile guztientzat ikusgai dagoen egutegian zeregin, galdetegi edo data garrantzitsuak zehazteko aukera ematen du Edmodok, ikasketa prozesuaren antolaketarako.

Komunikazioari dagokionez, edozein momentutan idatzi beharrekoari buruzko zalantzak argitzeko mezuak bidali eta jasotzeko aukera eskaintzen du, ikasle-ikasle eta

ikasle-irakasle arteko kolaborazioa erraztuz. Mezuak, irekian, taldean edo pribatuan bidali daitezke, komunikazio interesen arabera. Hau horrela izanik, etengabeko informazio edo eduki trukaketa eta transferentzia egin daiteke, gelako ordu mugetatik at.

Bestalde, Edmodoren segurtasuna ere bada aipatzeko alderdia. Irakasleak, posta elektronikoko helbideen beharrik gabe, gelak eta ikasleak kudeatzen ditu. Horretarako, plataforman sartzeko kode bat dago, irakasleak ezagutuko duena eta aldatu edo mantendu daitekeena. Esan daiteke, ikasleak plataforman askatasunez aritzeko aukera dutela, baina beti ere argi izanda irakaslearen kontrolpean dagoen eremu seguru batean arituko direla.



1. irudia: Edmodoren aukerak

Edmodo bada idazketarako jarduera horiek aurrera ateratzeko baliagarria eta erabilgarria den tresna digitala. Plataformak eskaintzen dituen aukerak lau dimentsioetan identifikatu dira aurreko jardueretan proposatzen dena kontuan izanik: i) ikasleen parte-hartze aktiboa, ii) baliabide eta informazio bankua, iii) elkarlana eta iv) jarraipena eta ebaluazioa.

- **Edmodo eta parte-hartze aktiboa**

Idazketa prozesua ez da soilik idazketa formal eta neurtura mugatzen, beharrezkoa da ikasleek naturaltasunez eta modu informalean idaztera bultzatzea eta hori Edmodoren bitartez posiblea da plataformak duen sare sozial itxura eta funtzionamenduagatik.

Students will also gain transferable experience through the Edmodo network, as it is similar to existing social networks. This is a necessary life skill in our contemporary technology-saturated lifestyle. (Holland & Muilenburg, 2011, 3232)

Parte-hartzea bultzatzeko ariketak proposatuz, ikasleei galdera zuzenak eginez eta euren ekarpenak eta iritziak guztiontzat partekatzeko eskatuz, Edmodok deun hasierako orrri-arbelean egiteko aukera aproposa da. Ariketa hauek bultzada bezala erabili daitezke ikasleek iniziatiba har dezaten idazteko.

Another facility provided by Edmodo was interaction and meaningful tasks. Note menu provided opportunities for the students and the teacher to interact by posting something or giving comments to a post. Interaction also took place when the students post or ask genuine questions to the teacher such as when they find difficulties to access Edmodo features. (Purnawarman, Susilawati, and Sundayana, 2016, 247)

- **Edmodo informazio eta baliabide bankua**

Edmodon, parte hartzeko plataforma izateaz gain, bada informazio eta baliabide bankua ere. Aukera hau, “Biblioteca” (irakasleentzat) edo “Mochila” (ikasleentzat) izendatuta dagoen atalak ematen du. Bertan, irakasle zein ikasleek (bakoitzaren geletan) idazketarako edo testu-lanketarako partekatutako eduki,

baliabide eta estekak gorde egiten dira. Biltegiaren erabilera eta kudeaketa irakasle eta ikasleek egin dezakete, rol bakoitzak baimentzen duenaren arabera.

Halaber, biltokitik bertatik, edukiak antolatu eta idatziak sortzeko aukera dago. Sortutako artxiboak igotzeko aukera dago eta karpetak sortzeko ere aukera izango dute erabiltzaileek.

Aipatutakoaz gain, biltokia edo liburutegia norberaren Google Drive kontuarekin sinkronizatzeko aukera dago. Honela, bertatik bakoitzaren idatzi eta artxiboetara sarbidea izango dute irakasle eta ikasleek.

- **Edmodo elkarlanerako plataforma**

Arestian esan bezala, komunikazioa eta kolaborazioa badira tresna honek bermatzen duen zerbait. Irakasle eta ikasleak elkarlanean ibiliko dira jarduera ezberdinen aurrean. Kolaborazioa, maila ezberdinetan ematen da: gela osoan eta talde kooperatiboetan.

Bakarkako lanetik abiatuta, talde osoan eraikitako testuak sor daitezke. Gainera, ikasle guztiek dute irakasle zein ikaskideek idatzitakoa baloratzeko zein iruzkintzeko aukera. Plataformako hasierako arbelean, argitaratzen den oro *atsegin dut* adierazteko aukeraz gain, iruzkintzeko nahiz partekatze aukera ematen da, erabiltzaileen arteko interakzioa bultzatuz.

Ikasleek egiten den guztia ezagutu, baloratu eta hausnartzeko aukera dute eta horretarako komunitatean parte-hartzeak, idatzirako jarrera eta lanketa aberastuko du.

- **Ikasleen jarraipena**

Ikasketa prozesu orok izan behar du bere jarraipen eta ebaluazioa, baita idazketa prozesua lantzeko jarduerak ere. Narrazioa lantzeko hiru faseetan zehar, galdetegi eta zeregin ezberdinak daude proposatuta ikasleen ikasketa prozesuaren jarraipena egin ahal izateko. Edozein lanketa egin eta gero, ikasleek zenbateraino barneratu duten landutakoa neurtzeko frogak proposatzen dira, azken ekoizpenarekin batera.

Edmodok frogak eta zereginak sortzeko aukera eskaintzen dio irakasleari, hala nola, kalifikaziorako koaderno digitala ere. Plataformatik beretik, behar izanen arabera, froga ezberdinak (galdetegiak, inkestak) sortzeko edo bankutik berreskuratzeko aukera dago. Honez gain, zereginak ere sortu daitezke, bete beharreko irizpideak eta epeak zehaztuz. Froga eta zereginetan, kalifikazioaz gain, zuzenketak eta iruzkinak egiteko aukera izango dute ikasleek, eta baita irakasleak ere.

Ikasgaiaren jarraipenerako beste baliabide bat eskuragarri dagoena egutegia da. Egutegiaren bitartez, irakasleak hiru motatako jakinarazpenak idazteko aukera izango du: frogak, zereginak eta jazoera bereziak edo ohartarazpenak. Egutegiak funtzionamendu bikoitza izango du; alde batetik, irakaslearen plangintzarako izango dena eta, bestetik, ikasleekin partekatua izango den egutegia.

Ikasleen kalifikazioen kontsultarako, Edmodok kalifikazio koadernoak ikusteko aukera ematen du. Kalifikazio koadernoak, lortutako emaitzez gain, ikaslearen aurrerapenari buruz ere informazioa eskaintzen du. Jasota dagoen informazioa irakasle zein ikasleek kontsulta dezakete. Irakasleak, Edmodon sortutako frogez gain (hauek automatikoki agertzen dira koadernoan), ebaluatu gura dituen beste aspektu edo frogetarako kalifikazio-zutabeak sor ditzake. Gainera, kalifikazio-koadernoko kalifikazioak CSV formatuan esportatzeko aukera izango du irakasleak behar izanez gero, ikasleak ebaluatu ahal izateko.

2. 2. 3. Erabiltzaileen rola

Erabiltzaileez ari garenean, bi dira finean zehaztu beharrekoak: irakaslea eta ikaslea. Ikaslearen rolaz eta jarreraz jardun aurretik oso garrantzitsua da irakaslearena ere zehaztea. Irakaslea jarrera aktibo eta positiboa izan behar duen erreferentea izan behar da, parte-hartzearen bultzatzaile eta dinamizatzailearen rola hartu behar duena, are gehiago, lehen aldiz martxan jartzen denean. Irakaslearengandik hasi behar da ikasleak Edmodo erabiltzera motibatzea eta parte hartzaile aktibo bihurtzea. Irakaslea izango da dinamika ezberdinetan hasierako pausua emango duena. Bestalde, bere esku ere egongo da jardueren azalpen eta hauetarako beharrezkoa den materiala eta baliabideak ikasleekin partekatzea. Prozesu osoan zehar, ikasleei feedbacka emateko lana hartuko du ere beregain.

Ikaslearen rolaz ari garenean, ikasleak idazketa prozesuan aktibo bihurtzeko tresna edo baliabide bezala ulertzen da Edmodo. Tradizionalki egin den idazketa prozesu formal horretatik harago, komunikatzeko, galdetzeko, lan egiteko eta iritzia emateko jarrera aktiboa izango duten ikasleak dira erabiltzaile idealak. Ikasleak ez dira entzule eta ekoizle sinpleak, idazketa prozesuan murgilduta egongo dira Edmodo plataforman izango duten presentzia eta lanketari esker, idazketari zentzua eta egiteko bat emanez,

Halaber, talde kooperatiboetan lan eginez, elkarlanean jarduten trebatuko dira ikasleak, ikasle heteroogenoz osatutako taldeetan elkarbizitza eta zereginen banaketan arituz. Talde hauek ere, idatzien berrikusketa sistemaren oinarri izango dira, horrela bermatuko baita ikasle guztiek euren ekoizpenaren berrikusketa eta balorazioa izatea, zuzenketarako tartea eskainiz.

Azalduta geratzen dira beraz, idazmenaren lanketan kontuan izan beharreko hizkuntzaren aspektuak eta hauek nola eragin dezaketen honen lanketan. Esan bezala, lan honetan idazmena den esparru zabalean, narrazio testu-motari heldu zaio zehazki, hau zertan datzan deskribatuz eta horretarako hezkuntza dekretuak² dakarrenarekin batera IKTen erabilera eta aukerak justifikatuz.

Ondoren datorren kapituluan, aurten egindako esku-hartzean erabilitako metodologia zehazten da. Hain zuzen ere, narrazio testuen lanketan Edmodo plataforma digitala nola baliatu den idazketarako.

² HEZIBERRI 2020.

3. KAPITULUA

3. Metodologia

Atal honetan gure lanaren helburua betetzeko, teknologia baliatuz idazketa ekoizpen aktibo, komunikatibo eta kolaboratibo bihurtzeko jarraitu diren pausoak azalduko dira. Aurten, 2018-2019an, Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailan narrazioa lantzea izan da helburua eta Edmodo plataforma baliatu da idazketarako baliabide gisa.

Edmodoren erabilera aurrez aurreko saioen osagarri gisa egin da. Ikasleei ikasketarako eta lankidetzarako tresna bezala aurkeztu izan zaie, erabilera eta kudeaketaren azalpenak emanaz.

Ondoren, Edmodoren erabilera aurrera eramandako bi proiektutan nolako izan den azalduko da. Bi proiektuetan, idazmena hiru pausotan landu da, Edmodo batez ere azken bi pausoetan erabiliz.

Egindako esku-hartze honen ondotik, datorren ikasturterako proposamen didaktiko sakonagoa egiteko saiakera dator, Edmodoren erabilera maila guztietan idazmena lantzeko baliagarria izango dena.

3.1. Lehenengo proiektua: Ipuin-lehiaketa

Lehenengo hiruhilabetean, narrazioaren baitan, ipuina izan da landutako azpi-generoa. Ipuinaren lanketarako hasierako egoera/arazo hau azaldu zaie ikasleei:

“Bilboko Udalak urtero lez, Ramon Rubial narrazio lehiaketan parte hartzera gonbidatu gaitu. Zuon adin-tarteari ipuina aurkeztea dagokio, beraz ipuinak idatzi eta aurkeztu ahal izateko, lehenengo eta behin zer diran, zer ezaugarri daukien eta zer egitura jarraitzen daben aztertuko dogu. Ondoren, idatz teknikak ere landuko doguz.”

Hau izanik abiapuntua, ipuinaren lanketa hiru fasetan landu da: i) ipuinen irakurketa eta ulermena; ii) testuen ezaugarri eta egituraren azterketa; iii) ipuinen ekoizpena.

3.1.1. Ipuinen irakurketa eta ulermena

Ipuinen irakurketa eta ulermenarekin hasi aurretik, irakurketa eta idazketari buruzko gogoeta txiki bat egin da ikasleen perfilak ezagutu eta barne hausnarketa txiki bat egite aldera. Ondoren, ikasgaiari dagokion testu-liburuan jasotako testuen irakurketa egin da. Irakurketa eta gero, irakurritakoaren gaineko ulermen galderen bidez testuaren ulermena landu da.

Lanketarako erabilitako testu eta jarduerak Ostadar proiektuko, 3. unitate didaktikotik: “Inoiz idatzi gabeko ipuinak”.

3.1.2. Ipuinen ezaugarri eta egituraren azterketa

Fase honetan, ipuinen irakurketa egin eta gero, istorioaren kontaktak dituen ezaugarriak aztertu dira. Honako hauek aztertu izan dira banan-banan: lekua, denbora, pertsonaiak, narratzailea, diskurtso mota, argumentua, ekintzak eta egitura.

Elementuak testuan identifikatu eta gero, egiturari loturiko ariketak egin dira. Jarduerak, ipuin bateri hasierako egoera desberdinak proposatzea eskatu da. Horretarako, ikasleak talde txikitan (3-4 ikasleko taldeak) batu eta hasiera bat proposatu dute. Hasiera horiek, gelan komentatu eta gero, Edmodon partekatzeko eskatu zaie ikasleei (ikus 2. irudia).



2.irudia: *Taldeko hasierako-egoerak.*

Lanketarako erabilitako testu eta jarduerak Ostadar proiektuko, 3. unitate didaktikotik: “Inoiz idatzi gabeko ipuinak”

3.1.3. Ipuinen ekoizpena

Ipuinen ekoizpenarekin hasi aurretik, berriro aipatu da idazketaren helburua eta Ramon Rubial narrazio lehiaketaren oinarriak eta baldintzak azaldu zaizkie ikasleei. Baldintza horiek, testu formatuari eta jorratu beharreko gaiei buruzkoak izan dira. Lehiaketak, urtero gai posibleak proposatzen dizkie ikasleei, lehiaketaren irudian adierazita agertzen direnak (ikus 3.irudia).



3.irudia: [Ramon Rubial lehiaketa](#)


Haize Etxeandia publicó para **2.ebaluaketa, 2.ebaluaketa**
 Profesor  a las Begoñazpi Ikastola
 ene. 15 · 2:24 PM · 

RAMON RUBIAL 2018ko irabazlea


Orain dala urte batzuk, Helena deitutako neska bat bizi zan bi lagunekin, Lagrasse (Frantzia) deitutako herri batean. Lagrasse, Carcassonne herriaren ondoan kokatuta egoan. Garai horretan, Carcassonne Frantziako herririk turistikoena zan, gaztelu handi eta polit bat eukalako. Helena eta bere lagun bat, unibertsitatean ikasten egozan. Helenak, andereñoa izan gura eban, eta Evak, beragaz unibertsitatean ikasten eban lagunak, Medikua izan nahi eban. Martari, Helenaren beste lagunari, arropak diseinatzea gustatzen jakon eta arropa diseinatzailleentzako ikasturte bat egiten egoan. Hiru lagun honeek, batera bizi ziran eta zapatu guztietan L' Absolute diskotekara joaten ziran. L' Absolute diskoteka, Carcassonne herriaren kanpoaldean kokatuta egoan. Diskoteka horren kokapena oso erosoan zan eurentzako, kotkez joan ezkerro, gasolindegia bat pasata, diskoteka han egoalako. Gainera, gasolindegia hori Martaren lagun batena zan eta beti edariak, gozokiak etab. oparitzen eutsazan.

Zapatu batean, zapatu guztietan bezala, L' Absolute diskotekara abiatu ziran. Han dantzan ibili ziran hamabiak arte. Hamabietan, etxera joatea erabagi eben nekatuta egozalako eta gainera gasolindegian geldituko zirelako hitz egiten hamar minutuz, betiko lez. Baina egun hartan, gasolindegira iritsi ziranean, Marta eta Eva gasolindegia jabearekin hitz egitera joan ziran baina Helena nekatuta egoanez, kotxean gelditu zan. Momentu horretan gura eban bakarria lo egitea zan eta. Lo geratzen egoan momentuan, ohiu batzuk entzun ebazan. Ohiuak holan esaten eben:

4. irudia: *Ramon Rubial irabazlea 2018*

Eredu gisa, ikasleek zer egin behar duten jakiteko, iazko irabazlearen (ikastolako ikaslea) ipuina ere partekatu da Edmodon (ikus 4. irudia).

Horrez gain, irakasleak ikasleei jakinarazi dizkie zeintzuk izango diren idazlana entregatzeko baldintza eta zuzenketa irizpideak. Baldintza eta irizpideak gelan nahiz Edomodon sortutako zereginean izan dituzte beti ikasleek ikusgai (ikus 5.irudia).



The screenshot shows a Moodle assignment page. At the top, there is a search bar and navigation icons for Home, Por Entregar, Progress, and Bibliography. The assignment is titled 'Ipuina' and was created by Haize Etxeandia. It is for the course '2.ebaluaketa, 2.ebaluaketa' and is assigned to 'las Begoñazpi Ikastola'. The due date is December 20, 2018, at 11:45 AM. The assignment details include a submission limit of 65, a due date of December 20, 2018, at 11:45 PM, and a description in Basque. The description states that the assignment is to be completed in the IPUINA module and provides specific formatting requirements for the text, such as line spacing, justification, paragraph spacing, and font size. It also lists submission options: Drive (for online submission) and Pendrive (for physical submission). A warning at the bottom states that late submissions will not be accepted.

Entregada (65) Fecha Límite: diciembre 20, 2018, 11:45 pm

Dakizuen moduan unitate honetan IPUINA landuko dogu idazlan lez.

Hona hemen ipuina entregatzeko bete beharreko baldintzak:

Testuaren formatua

- Gutxienez 2 orrialde eta gehienez 8 orrialde idatziko dira (orri bat = aurpegi bat)
- Lerroarte (interlineado) 1.5
- Testua justifikatuta.
- Paragrafo ostean espazioa utzi.
- Letra zeuek aukeratu daitezue, baina gehienez 12ko tamainan. Ez erabili negrita, bakarrik izenburuan.
- Ipuinak izenburua euki behar dau.
- Ipuinak ez du irudirik edo ilustraziorik izan behar testuaren barnean. Marrazkirik egin nahi ezker (eskuz zein ordenagailuz) aparteko orri batean aurkeztu beharko dira eta guztiz originalak izan beharko dira.

Entregatzeko baldintzak:


1. Artxiboaren izena: Ipuina_(izen abizena)
2. Zuon artxiboa atxikitu (adjuntar).
- **Drive** konektatuta duakazuenok, drivetik atxikitu artxiboa aukera erabili. (Driveko konexioagaz arazoak euki ezker, beheko aukera erabili)
- **Pendrive** batean daukazuenok, zuon artxiboa PDF formatuan "mochila" atalera igo eta ostean motxila ataletik atxikitu.
3. "Entregar asignación" sakatu.

OHARRA: epez kanpoko lanik ez da onartuko.


16 Me Gusta Comentar

5. irudia: *Ipuina zeregina*

Idatzi beharrekoaren baldintzez gain, idazterakoan baliagarriak izan ahal zaizkien liburuko informazio-iturrien orrialdeak zein bestelako baliabideak ere partekatu dira ikasleekin (ikus 6 eta 7. irudiak).



6. irudia: Ipuina idazteko baliabideak I



7. irudia: Ipuina idazteko baliabideak II

Egitekoa azalduta, idazketa zatika egitea bideratu da, ipuinen egitura ikasle guztiek errespeta zezaten, idazketa antolatze eta egituratze bidera. Horrela, ikasleei hasierako egoerak bere baitan hartzen duen informazioa (ikus 8.irudia) birgogoratu zaie: kontalaria, lekua, denbora, pertsonaiak.



8. irudia: *Hasierako-egoera azalpena*

Ikasleek euren hasierako egoerak gelakide guztiekin partekatu dituzte. Partekatze horren bidez, batzuk besteak idatzitako irakurtzeko aukera izan dute eta berrikusketarako tartea ere bai. Ikasle zuzentzaile eta dinamizatzaileek, egokitutako kideen hasierako egoerak berrikusi dituzte, iruzkin bidez zuzenketak proposatuz (ikus 9.irudia)



9.irudia: *Ikasleen iruzkinak*

Hasierako egoerak idatzi eta berrikusita, arazo eta ekintzen idazketarekin jarraitu da (ikus 10.irudia). Ikasleek, arazo eta ekintzen idazketa gainontzeko ikaskideekin partekatzen jarraitu dute, beraiek idatzitako hasierari iruzkin bat eginez (ikus 11.irudia).



A screenshot of a Facebook post. The user is Haize Etxeandia, a professor at Las Begoñazpi Ikastola, who posted on December 13, 2018, at 3:24 PM. The post is titled 'Haize Etxeandia publicó para 2.ebaluaketa'. The text of the post discusses the initial situation of students and their reactions to the exam process. It mentions that students are writing about their problems and actions, and that the initial situation is being reviewed. The post includes a hashtag #ipuingintzan and shows 8 likes and a comment button.

10.irudia: Arazoak eta ekintzak I



A screenshot of a Facebook post by a student. The user is anonymous, with their name redacted. The post is titled 'publicó para 2.evaluaketa' and was posted on December 13, 2018, at 3:22 PM. The text of the post describes the student's experience with the exam process, mentioning their family and the challenges they face. The post includes a link to 'Mostrar más respuestas...' and shows 12 likes and 2 comments.


IKASTOLAKO LEHENENGO EGUNA:

Ikastolako lehenengo eguna da eta berandu noa, ez dot eztabaidarik nahi ikastolako lehenengo egunean!!
Ikastolara kotxez noa, nire etxetik ez dagoalako hurbil.
Ikastolara heldu nazanean nire aitei musu bat emon deutset, eta korrika klasera joan naz. Sartu naz, eta nire aurreiritzia ez da oso ona izan, jendea niri aurpegi txarragaz begiratzen dago.


11.irudia: Arazoak eta ekintzak II

Ipuinen idazketa amaituta, eta guztiek Edmodon partekatuta. Azken berrikusketa egin dute ikasleek, hasierako-egoerarekin egin bezala.

Entregatze-data idazketa fasearen hasieratik ezagutu izan dute ikasleek, beraz berrikusketak eta azken zuzenketak eginda, ikasle bakoitzak bere lana zereginen atxikitu du irakasleak zuzendu eta ikasleak, zuzenketa eta kalifikazioak jasotzeko. Entregatzeko momentuan sortu diren arazoak ekiditeko laguntza-mezuak idatzi dira Edmodoko arbelean zein ikasle zehatzetik modu pribatuan (ikus 12 eta 13.irudiak).



12.irudia: *Oharra I*



13.irudia: *Oharra II*

3.2. Bigarren proiektua: Grezia eta Erroma

Bigarren proiektua, proiektu interdiziplinarra izan da Euskera, Erlijio eta Gizarte ikasgaiak bere baitan hartu dituenak. Hiru ikasgaietako edukien lanketa bidez, ikasleek mito baten bideo grabaketa egin behar izan dute; bideo grabaketa horren oinarrian, idatziz egindako mitoaren idazketa izanik.

Proiektuaren aurkezpenean, guk irakasleok grabatutako mito baten bideoa erakutsi izan zaie ikasleei, azken egitekoa edo helburua zein den azaltzeko.

Ikasgaien arteko lotura honako hau izan da: Gizarte eta Erlijio ikasgaietan, Grezia eta Erromako gizarteak landuko dituzte, gero ikasitakoa, eurek idatzitako mitoan aplikatzeko. Horrela, Euskara ikasgaietan, kondaira eta mito azpi-generoak landuko dira, azken produktuaren oinarri izango direnak.

3.2.1. Kondaira eta mitoen irakurketa eta ulermena

Kondairatik hasita, kondaira ezberdinen irakurketa egin da ozenean eta gero, ulermeneko galderak erantzun. Kondairen irakurketarako, Ibaizabal argitaletxearen DBH 2.mailako liburuko testu eta galderak dira erabili direnak.

Honen ondoren mitoen irakurketarako baliabidea partekatu izan zaie ikasleei, bakoitzak nahi duen mitoa irakur zezan (ikus 14.irudia).




14. irudia: *Mitoe eta kondaira baliabideak I*

3.2.2. Kondaira eta mitoaren ezaugarri eta egituraren azterketa

Bi narrazio hauen arteko aldea ulertzeko, ikasleei, eurek irakurritako testuan oinarrituta bakoitzaren ezaugarriak idaztea eskatu izan zaie. Lehenengo ariketa hau eginda, bigarren pauso bat eman behar izan dute, informazio iturri ezberdinetan bilatuz, aurretik egindako lanari justifikazio bat emateko. Ikasle guztiak bi ariketa hauek eginda, bi elementu konparatzeko pentsamendu errutina erabili da, *konparatu eta alderatu* errutina. Bi pausotan egin da; lehenik ikasleentzako talde txikian adostu dute eta ondoren, talde handian talde txikiek erabakitakoa adierazi da. Errutinan jarri beharreko informazio guztia, ikasleek ekarritako bilaketa horretan oinarritu da; hau da, irakasleak ikasleentzako hitzak guztiz errespetatu ditu baloraziorik egin gabe. Errutinaren azken pausotan, behin aldeak konparatuta, ikasleak ondorio batzuk atera behar izan dituzte.

Errutina hau osotuta, irakasleak kondaira eta mitoei buruzko azalpena egin du gelan. Azalpena egin eta gero, aurreko errutinak betetako informazioaren kontrastatzea egin da, zegoena ontzat edo desegokia den erabakitzeko. Azalpenerako erabilitako baliabidea ikasleekin partekatu da Edmodon (ikus 15.irudia).

Fase honetako ariketa, mitoaren azterketan zentratuko da. Horretarako, ikasleek aurretik landutako guztia kontuan hartuta eta irakaslearen laguntzaz, mitoaren ezaugarri eta hauen funtzioaz hausnartzeko, osoa eta zatiak pentsamendu errutina erabili da. Errutina honen bidez, azken ekoizpenerako “Mito perfektua” idazteko beharrezkoak diren zatiak identifikatu ahal izan dituzte.



15. irudia: *Mitoe eta kondaira baliabideak II*

3.2.3. Mitoen ekoizpena

Mitoaren ekoizpenerako, Gizarte eta Erljio ikasgaietako taldeetatik abiatu egin da idazketa. Hasierako egoeraren idazketarako, taldean adostu dituzte mitoak izan behar dituen ezaugarrietako bakoitza. Hau egin eta gero, taldekideen artean hasierako-egoera bat idatzi dute, gero bakarkako ekoizpenaren hasiera izango dena. Ariketa hau gelan eginda, bakoitzak idatzi behar duen mitoaren idazketarekin hasi dira. Oraingoan ere, aurreko proiektuan bezalaxe, idazketa Edmodon egin dute berrikusketa sistema bera jarraituz eta zeregin batean zehaztu zaie ikasleei mitoa idazteko baldintzak eta azken entregarako epea (ikus 16. irudia).

Haize Etxeandia publicó para Euskera 1E, Euskera 1D
Profesor a las Begoñazpi Ikastola
mar. 20 · 10:13 AM ·

MITOA

Entregada (59) Fecha Límite: abril 12, 2019, 11:59 pm

Dakizuen moduan proiektu honetarako MITOA idatziko dogu.

Hona hemen MITOA entregatzeko bete beharreko baldintzak:

Testuaren formatua

- Lerroarte (interlineado) 1.5
- Paragrafo ostean espazioa utzi.(añadir espacio después de párrafo)
- Testua justifikatuta.
- Letra zeuek aukeratu daitezue, baina gehienez 12ko tamainan. Ez erabili negritak, bakarrik izenburuan.
- Mitoak izenburua euki behar dau 14ko tamainan.
- Puntu/koma ostean espazioa egon behar da.
- Zuzentzaileak zuzentzen/azpimarratzen dauzen berbak zuzendu (bizkaierazko aditzak eta erakusleentzat ez dau zuzenketarik proposatuko)
- Mitoak ez dau irudirik izan behar..

Entregatzeko baldintzak:

1. Artxiboaren izena: Izen-abizenak_mittoa
2. Zuo artxiboa atxikitu (adjuntar).

- Drive konektatuta duakazuenok, drivetik atxikitu artxiboa aukera erabili. Drive artxiboa nigaz partekatu (compartir teklan, goian eskumaldean) Nire emaila: haize.etxeandia@begonazpi.eus
- Pendrive batean daukazuenok, zuon artxiboa Word formatuan "mochila" atalera igo eta ostean motxila ataletik atxikitu.

16. irudia: Mitoaren zeregina

3.3. Edmodoren erabileraren balorazioa

2018-2019 ikasturtean, lau irakasle izan dira idazketa Edmodo plataforma bitartez bideratu dutenak. Hauetariko bik, batxilergoan iruzkin kritikoa lantzeko eta beste biak, DBHko lehenengo zikloan narrazio testuak lantzeko. Horregatik, plataformaren erabilera eta plataforma bera idazmenerako baliagarria den baloratzeko inkesta bat pasatu zaie irakasle hauei.

Galdetegian, galderak lau blokeetan banatu dira: i) Edmodo plataforma; ii) Edmodo gelan; iii) Edmodo eta idazmena; iv) Ondorioak.

| BLOKEAK | GALDEGAIAK |
|-------------------------------|----------------------------|
| 1. Edmodo plataforma | Ezagutza |
| | Segurtasuna |
| | Erabilera |
| | Motibazioa |
| | Antolaketa |
| | Metodologia |
| 2. Edmodo gelan | Aplikazioa |
| | Lankidetzeta eta elkarlana |
| | Komunikazioa |
| | Jarraipena |
| | Baliabideak |
| 3. Edmodo eta idazmena | Motibazioa |
| | Erabilgarritasuna |
| | Elkarlana |
| | Komunikazioa |
| 4. Ondorioak | Ikasleengan eragina |
| | Idazmenerako tresna |

| | |
|--|-------|
| | Mugak |
|--|-------|

Honako hau da, Edmodoren baloraziorako irakasleei zuzendutako galdetegia:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdR6qljWf0mM9mjzj8wjL_aOfjXEKlMAEh1CJnpeP5srJHMg/viewform


Irakasleek egindako inkestaz gain, ikasleen parte hartzea eta honen kalitatea kontuan hartuko da, idazmenaren lanketan mesedegarria den baloratzeko. Hurrengo atalean aipatutako emaitzak adieraziko dira baliabide honen balorazioa neurtzeko.

4. KAPITULUA

4. Lortutako emaitzak


Emaitzak aztertzerakoan bi arlo hartu izan dira kontuan. Lehenengoa, Edmodoren edo ikasgela birtualaren erabilerak ikasleen idazmenean izan duen eragina aztertu nahi izan da. Bigarrena, irakasleok Edmodoren erabilerari buruz izandako balorazioa aztertzea.

Lehenengo arloari dagokionez, ikasleek Edmodon izan duten parte hartzea aztertuta, ikasleen gehiengoak parte hartze aktibo bat izan du plataforman. Plataformarako sarbidea aplikazio bidez eginez, jakinarazpenak jasotzeak, ikasleen interesa piztu du eta ondorioz parte hartzea bermatuz (ikus 17.irudia).



17. irudia: *Jakinarazpenak, mezuak, bidalketak*

Komunikazio asinkrono horrek, idazketa ez du soilik gelako orduetara mugatu eta hori askorentzat abantaila izan omen dela jakinarazi didate, mezuak eta idazketa etxetik eginaz. Honekin lotuta doa ere, kalifikazio eta iruzkinak ikusi eta erantzuteko aukera izatea (ikus 18. irudia).



The screenshot shows a user interface for reviewing a submission. On the left, there is a profile icon and a redacted name. Below that, it says 'Última Revisión' and 'Submitted on time 19 de dic. de 2018 - 20:00'. A large light blue box represents the submission content. Below the box, it says '- 1 archivo adjunto -' and there is a redacted name 'Ipuina_'. On the right, there are two buttons with the numbers '7' and '10', and a 'Guardar' button with a close icon. Below these buttons is the text 'Solicitar Reentrega'. A comment thread follows, with the first comment from 'yo' dated 'hace 162 días' saying 'Dokumentuan sartu eta nigaz partekatu zuzendu ahal izateko: haize.etxeandia@be-gonazpi.eus'. The second comment from 'yo' dated 'hace 160 días' contains a list of points: '- Ergatibo (Nork kasua) nahikotxo faltan.', '- Kontuz egitura berdintsuak zabilz behin eta barriro errepikatzen (... baina...)', and '- Istorioaren ildoak be batzutan galdu edo gitxi sakonduta dago, nahiko errepikakorra da denbora guztian ia antzekoa aipatzen da.'

18. irudia: *Kalifikazio eta iruzkinak*

Bigarren arloari dagokionez, idazmenari berari ekarri dizkion onuren artean, alde batetik ondoriozta daiteke sistematikoki egiten dituzten akatsak identifikatzeko gai direla. Nahiz eta bakoitzak bere testuan egiten dituen akatsak zailago diren identifikatzen, ikaskideen testuetan kapazak izan dira identifikatzen (ikus honako irudiak: 19, 20, 21 eta 22). Horrela, berrikusketa sistemaren bitartez, azken entrega aurretik hauek zuzentzeak, irakaslearen zuzenketak eta iruzkinak beste maila batera igarotzea ekarri du; testuari eta diskurtsoari lotutako iruzkin eta zuzenketak, alegia (ikus 18.irudia).


Bestalde, bakoitzaren diskurtsoa aberasteko iturria ere izan da Edmodon egin diren idatzizko ekoizpenak. Besteek idatzitakoa irakurtzera bideratuta ikasleak, eredu ezberdinak irakurriz norberaren lana elikatzeke balio izan du. Honen adibide da, hasierako-egoerak taldean idatzi behar izatea.

 publicó para **Euskera 1E**
 mar. 29 · 10:11 AM · 

ROMULO ETA REMO

[#greziaetakroma](#)

Mitoak dioenez, 771. urtean K.A. ama bat haurdun geratu zan, eta bi seme euki ebazan. Romulo eta Remo. Bi mutiko honek bikiak ziran eta Italian jaio ziran. Euren bizitza oso zaila izan zan. Azkenean, bere ama, ume biak Tiber ibaira bota ebazan, baina otso bat aurkitu ebazan eta urte batzuk geroago historiara pasatuko zira... [Más](#)


 7 Me Gusta  2 Comentarios  Compartir

[Mostrar más respuestas...](#)

 
 Ertzain jarri beharrea artzain
 eukin jarri beharrea euki
 Erromaren guda jarri beharrea Erromako guda
 kampamedu jarri beharrea kanpamentu

 Me Gusta · [Responder](#) · mar. 29, 2019, 10:39 AM

19. irudia: *Ikasle berrikusketak I*

 publicó para **2.ebaluaketa**
 mar. 28 · 3:22 PM · 



[#greziaetakroma](#)

ROMULO ETA REMOREN MITOA

Mitoak dioenez bazan behin 771.K.A.en urtean ama bat haurdun geratu zan, eta bi seme euki ebazan. Rómulo eta Remo. Bi mutiko honek bikiak ziran eta Italian jaio ziran. Euren bizitza oso zaila izan zan baina euren arazoei aurre egin eben eta urte batzuk geroago historiara pasatuko ziran.


·

Teodoro Erromako gizon bat zan. Hilabetero Erromatar zirkoan borrok... [Más](#)


 10 Me Gusta  2 Comentarios  Compartir

[Mostrar más respuestas...](#)

 
 Bigarren parrafoan azkenengo lerroan puntu eta gero letra larria
 ipini

 Me Gusta · [Responder](#) · mar. 29, 2019, 10:09 AM

20. irudia: *Ikasle berrikusketak II*

 publicó para **Euskera 1E** mar. 27 · 9:29 AM · 🌐


#greziaetakroma

Amazonaseko Mitoa

Mitoak dioanez, bazan behin; Themys herrian, neska gudari talde bat, talde honetan, bi ahizpa erregin egozan, Hipolita eta Penteselea. Azkenengo hau, Amazonen erregina zan eta enemistade oso handia eukan Akilesegaz. Bere ahizpa Hipolitak, Herkulesekin euki zuen arazoa. Emakumeak Troiara joan ziranean ez ziran gauza onak pasatu.

Goizeko bostak ziran eta Amazonas... [Más](#)

👍 5 Me Gusta 💬 1 Comentar ➦ Compartir

 Gogoratu formulak ipini eta gero komak ipini behar dirala eta pertsonai bat hitz egiterakoan gidoi bat ipini behar dala aurrean. Zuzendu.

1 Me Gusta · Responder · mar. 28, 2019, 3:25 PM

21. irudia: *Ikasle berrikusketak III*

 publicó para **2.ebaluaketa** mar. 28 · 3:53 PM · 🌐

#greziaetakroma

JAINKOEN SALBATZAILEA

Antzinako Greziako garaletan, Jainkoak bizi ziren olimpo median. Egun baten Hades atzerriratu eben Olimpotik eta bengatu gura ebela esan eban. 2000 urte pasa ziran eta ez zen ezer gertatu, Hades itxaron behar ebalako planetak lerroan ipintzea eta infernuko zaintzaileak askatu.

Egun baten ume bat jaio zen Olimpo mendian, deituta Andres. Gau batean Hades, And... [Más](#)

👍 7 Me Gusta 💬 3 Comentarios ➦ Compartir

Mostrar más respuestas...

 eser da ezer
bengatu da mendeku
iri da hiri
sarituta da zaurituta
edade da edabe
eta koma gehiago ipini

1 Me Gusta · 1 Respuesta · mar. 29, 2019, 10:16 AM

 eta sanean zanean da


Me Gusta · mar. 29, 2019, 10:21 AM

22. irudia: *Ikasle berrikusketak IV*

Irakasleok betetako inkestari helduta, oro har esan daiteke irakasleek ikasgela birtualen eta konkretuki Edmodo plataformaren erabileraren alde positiboak baloratu dituztela. Edmodok eskaintzen dituen aukerak, oso ondo baloratuak izan dira eta guztiz aproposak ikusten dira ikasleekin erabili eta hauen idazmenerako motibazioa eta jarrera aktiboa bultzatzeko. Lau irakasleren emaitzek baiezkoa erakusten dute (ikus honako irudiak: 23, 24 eta 25).

Edmodo ikasleen elkarreragina sustatu eta bultzateko baliabidea da.


4 erantzun



23. irudia: *Edmodo balorazioa I*

Edmodon ikasleen parte hartzea eta inplikazioa handiagoa da.


4 erantzun



24. irudia: *Edmodo balorazioa II*

Edmodo idazmena lantzeko tresna aproposa da.

4 erantzun




25. Edmodo balorazioa III

Gelan ematen zaion erabilera aztertuz, emaitzek adierazten dute lautik hiru irakaslek aurrez aurreko saioen osagarri gisa erabiltzen dutela baliabide hau (ikus 26. irudia). Irakasleen egitekoetan zentratuz, komunikaziorako, baliabide banku, zereginak sortzeko eta ikasleen jarraipena egiteko tresna da Edmodo (ikus 27. eta 28. irudiak).

Edmodo aurrez aurreko saioen osagarri gisa erabiltzen dut


4 erantzun



26. irudia: Edmodo gelan I

Edmodo ikasleekin komunikatzeko bide bezala erabiltzen dut.


4 erantzun



27.irudia: Edmodo gelan II

Edmodo ikasleen jarraipena egiteko erabiltzen dut.

4 erantzun




28. irudia: *Edmodo gelan III*

Inkestak idazmenari buruz emandako emaitzen artean, gehiengoak Edmodo idazmenaren lanketarako lagungarria den baliabide digital bezala ikusten du. Ahots batasunik ez egon arren, gehiengoak idatzizko ekoizpenari mesede egin dakioken baliabidezat du.

Edmodo idazmena lantzeko lagungarria da.


4 erantzun



29. irudia: *Edmodo eta idazmena I*

Edmodon ikasleek besteena irakurri eta iruzkinak egiten dituzte.


4 erantzun



30. irudia: *Edmodo eta idazmena II*

Ikasleak beste kideena irakurritz aberasten dira.


4 erantzun



31. irudia: *Edmodo eta idazmena III*

Ikasleek euren eta besteen zuzenketei esker akats sistematikoak zuzentzen dituzte.

4 erantzun



32. irudia: *Edmodo eta idazmena IV*

Inkestako emaitzen grafikoek argi adierazten dute hori, irakasleen iritzietan gehiengoak aipatutako alderdietan guztiz lagun dezakeela edo gutxienez laguntza hori onartuz. Irakasle bakar batek Edmodok idazmenean ez duela mesederik egiten aitortzen du (ikus honako irudiak: 29, 30, 31 eta 32).

Emaitzok ikusita, nabarmentzekoa da irakasleen artean harrera ona izan duela Edmodorekin egindako esku-hartzeak. Hori oinarri hartuta, hurrengo atalean datorren ikasturterako proposamen didaktikoa aurkezten da.

5. Sekuentzia didaktikoaren proposamena

Aurten egindako esku-hartzearen ondotik, hurrengo ikasturtera begira, Edmodoren erabileran eta testu lanketan sakonduz, sekuentzia didaktiko osoago baten proposamena egin da. Sekuentzia didaktiko honetan, narrazio testuen lanketa eta idazketa, ikasgela birtual edo LMS bidez lantzeko proposamena da. Horretarako, narrazioa lantzeko jardueren sekuentzia eta hauen azalpena egin da.

5.1. Narrazioak lantzeko jarduerak

Ikasleek narrazioak lantzeko proposatzen diren jarduerak hiru bloke nagusitan banatuko dira, hiru fasetan: i) hurbiltze jarduerak, ii) miazte jarduerak eta iii) ekoizpen jarduerak. Jarraian azalduko diren jarduerak narrazio testuak lantzeko dira, testuaren arabera moldatu daitezkeenak.

- **Hurbiltze jarduerak**

Hurbiltze jardueren helburua ikasleak narrazio testua ezagutu eta ulertzea da, edukietan eta testuinguru zehatz batean kokatzea.

- 1. jarduera:** Ikasleei erantzuteko hiru galdera proposatuko zaizkie euren aurrezagutzak ezagutzeko eta hauei buruz hausnartzeko.
 - Zer dira narrazioak?
 - Zer dira ipuinak?
 - Aipatu ezagutzen dituzun pare bat narrazioren izenburuak.
- 2. jarduera:** Ikasleek emandako erantzunak baliatuz, eztabaida edo tertulia bat egin.
- 3. jarduera:** Ahozko narrazioak eta idatzizko narrazioen ikus-entzuna egin eta galdera hauei erantzuna eman.

- Ahozko eta idatzizko narrazioek, biek, al dute helburu eta funtzio bera? Zein da euren arteko lotura?

4. jarduera: Narrazio lehiaketa ezberdinetako irabazleen lanak irakurri eta ulermen ariketak egin.

- **Miatze jarduerak**

Miatze jarduerak, behin ikasleak narrazioen testuinguruan kokatuta, aztertze lana bideratzeko proposatutako jarduerak dira. Hau da, narrazio testuen ezaugarriak, egiturak eta bereizgarriak ezagutu eta ulertzeko jarduerak dira.

Miatze jarduerak talde kooperatiboetan³ landuko dituzte ikasleek. Taldeak lau ikaslez osatutakoak izango dira eta irakasleak egindakoak ikasleen beharrian eta profilak kontuan hartuz egingo ditu.

5. jarduera: Talde bakoitzari narrazio testu bat partekatuko dio irakasleak. Testu horren gainean, talde bakoitzak ondorengo aspektuak identifikatu beharko ditu:

- Edukia: pertsonaiak, lekua, denbora, narratzailea eta gaia.
- Egitura: hasiera, ekintza nagusia, amaiera.

Identifikatu beharrekoari buruz, irakasleak informazio edo estekak partekatuko ditu ikasleekin.

6. jarduera: Narrazio testuan, denbora eta ekintzen kronologia aztertuko dute taldeek. Ekintza nagusitik abiatuta, ekintzak zerrendatu beharko dituzte, narrazioaren denbora kontuan izanik. Hau egin eta gero, ekintzen arteko loturak aztertu beharko dituzte testu/denbora antolatzaileak identifikatuz.

Horretarako ANALHITZA⁴ (Otegi et al., 2017) baliabidea erabiliko da eta bertako konjuntzio zerrendan identifikatu beharko dituzte zeintzuk diren zehaztutako

³ Talde kooperatiboa: Lau kideko talde heteroegoenok dira, alderdi guztietatik begiratuta, autonomia edo beregaintasun maila barne dela. Halabere, gaitasun handiko kide bat egongo da, bi ertainekoak eta beste bat maila baxuagokoa.

[http://patxilarrainzar.educacion.navarra.es/dokumentuak/Heziketa%20kooperatiboa%20\(IK-KI\).pdf](http://patxilarrainzar.educacion.navarra.es/dokumentuak/Heziketa%20kooperatiboa%20(IK-KI).pdf)

⁴ Hemen probatu daiteke ANALHITZA: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>.

antolatzaile horiek. Identifikatutako antolatzaile guztiekin zerrenda orokor bat osatuko da.

- 7. jarduera:** Narrazio testuetako lexikoa lantzeko erabiliko da jarduera hau. Testuan behin baino gehiagotan irakurrita, ezezagunak diren hitzen zerrenda bat egin beharko dute ikasleek. Talde bakoitzeko zerrendak, guztiontzat eskuragarri egongo dan zerrenda batean txertatuko dira.

Jarduera honetarako ere, aurrekoa jardueran ANALHITZA bitartez dokumentua oinarri izanik, "Lema" atalean ezagutzen ez dituzten hitzak azpimarratu ahalko dituzte eta honen erabilera maiztasuna ikusi.

Osatutako zerrenda orokor hori oinarri, ikasleek hiztegi froga bat burutu beharko dute. Froga horretan, hiztegia ariketa-mota ezberdinetan baliatu beharko dute; hala nola, hutsuneak betez, hitzak ordezkatzuz edo lekuz kanpoko hitzak identifikatuz.

- 8. jarduera:** Aurreko jarduerarekin lotuta, honetan izen-adjektiboak aztertuko dituzte talde kooperatiboek. Narrazio testuetan adjektiboak identifikatuta eta zein izeni egiten dioten erreferentzia ezagututa, adjektibo horiek irakasleak zehaztutako taula batean kokatu beharko dituzte.

Hemen ere, 6. jarduerako ANALHITZAKo dokumentua erabiltzeko aukera izango dute ikasleek. Horrez gain, irakasleak taula eta adjektiboaren sailkapenari buruzko materiala ikasleekin partekatuko du.

- 9. jarduera:** *Narrazio on baten dekalogo*a. Jada narrazioen azterketa nahiko sakona burutu dute ikasleek; beraz, narrazio batek bete beharreko baldintzak zehazte aldera, talde bakoitzak bere dekalogo osatu beharko du.

Dekalogo zer den eta adibideak emateaz irakaslearen esku lotuko da. Behin talde bakoitzak bere dekalogo eginda, talde osoaren artean, dekalogo definitiboa zehaztuko da.

- 10. jarduera:** Azterketa faseari amaiera emateko, ikasle bakoitzak taldean landutakoa indibidualki burutu beharko du. Irakasleak narrazio testu bat aukeratuko du eta

testu horren gainean ikasle bakoitzak bere analisia egin beharko du, aurreko jarduerak oinarri izanik.

11. jarduera: Dekalogoia oinarri izanik, edozein narrazio testu zuzentzeko errubrika eta kontrol zerrenda adostuko da Driven partekatutako dokumentu batean..

- **Ekoizpen jarduerak**

Ikasleek dagoeneko badakite narrazio testu bat zertan oinarritzen den, zeintzuk diren bere ezaugarriak eta egitura. Hau horrela dela ulertuta, praktikara eramateko ordua da. Fase honetan narrazio testuen ekoizpenerako jarduerak proposatzen dira.

12. jarduera: Kate narratiboa. Irakasleak zehaztutako galdera zerrenda bati erantzunez, istorio bana asmatuko dute ikasle taldeek. Talde bakoitzeko ikasle bakoitzak zenbaki bat izango du eta zenbakien hurrenkeran joango dira erantzuten istorioa osatuz. Galderak erantzuteaz gain, 6. jardueran eta 7. jardueran osotutako izen-adjektibo zerrendatik pare bat hitz erabili beharko ditu ikasle bakoitzak dagokion galderaren erantzuna formulatzerakoan. Hauek izango dira galderak:

- Nor zen?
- Non zegoen?
- Zer egiten zuen?
- Baina egun batean...
- Orduan...
- Baina berak...
- Eta...
- Azkenean...

13. jarduera: Kate narratibo erraldoia. Aurreko jardueran planteatzen den sistema antzekoa da, baina jarduera honetan ikasle guztiek hartuko dute parte istorio bera osatzeko. Zerrenda hurrenkeran, ikasle bakoitzak bere aurreko ikasleak idatzitakoari jarraitu beharko dio apurka-apurka istorioa osatuz.

14. jarduera: Inkesta ikasleei. Ikasgela birtualean, inkestan egingo den galdera hau izango da: *Zeri buruz idatziko zenuke istorio bat?* Lortutako emaitzak ikasleekin partekatu eta gai zerrenda erabakiko da.

- 15. jarduera:** Narrazioaren idazketa. Ikasle bakoitzak landutako guztia praktikan ipintzeko momentua da eta bakoitzak bere narrazio testua idatzi beharko du. Horretarako, aurreko jardueretako baliabideak erabiltzeko aukera izango du. Horrez gain, miatze fasean zehaztutako dekalogoak, errubrika eta kontrol-zerrenda kontuan izan beharko ditu narrazioa egokia izan dadin.
- 16. jarduera:** Narrazioak partekatu eta berrikusi. Jarduera honetan, ikasleek gainontzeko ikaskideekin partekatu beharko dute eurek idatzitakoa.

Berrikusketa sistema ona bermatzeko, aurretik sortutako talde kooperatiboak oinarri izanik, irakasleak talde bakoitzean bi zuzentzaile izendatuko ditu. Zuzentzaile horiek, beste kideen lanak irakurri eta iruzkindu beharko dituzte, beti ere aipatutako errubrika eta kontrol zerrenda oinarri izanik.

Sisteman honen bidez, ikasle bakoitzak bere idatziaren bi berrikusketa izango ditu; zuzentzaileen kasuan, batak bestearena eta irakaslearena. Berrikusketak egin eta gero, ikasleek euren idatzian egin beharreko moldaketak egiteko aukera izango dute, azken bertsioa entregatu aurretik. Idazlanaren azken bertsioa entregatuta, irakasleak, ikasleen arteko iruzkinak ikusi ahal izango ditu, aldaketak egin diren baloratu eta gero berorren iruzkin eta zuzenketak helaraziko dizkio ikasleari. Behin hauek ikasleak jasota, idatzia zuzendu eta berriro entregatzeko aukera izango du ikasleak. Irakasleak, lehen bertsioa nahiz azkena izango ditu kontuan.

5.2. Ikasgela birtuala: Edmodo

Jardueretako hiru faseetan daude ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatzeko ariketak (1, 3, 14 jarduerak, adibidez). Ariketa hauek irakasleek lagundurikoak dira, ikasleei galdera zuzenak eginez eta euren ekarpenak eta iritziak guztiontzat partekatzeko eskatuz. Galdera eta erantzunak publikoak dira eta edozein ikasleak izango du aukera bestearen ekarpena irakurri eta erantzuteko aukera. Foro edo blog antzeko erabilera hau, Edmodok duen hasierako orri-arbelean egiteko aukera oso aproposa da.

Lehenengo atalean aipatutako parte-hartze jardueretan, komunikazioa eta kolaborazioa, bakarkako lanetik abiatuta, talde osoan izango da. Jarduerak

irakasle-ikasle interakziotik abiatuta, irakasle-ikasle-irakasle izatera heldu daiteke plataformak eskaintzen duen iruzkinetarako aukerengatik. Plataformako hasierako arbelean, argitaratzen den oro *atsegin dut* adierazteko aukeraz gain, iruzkintzeko nahiz partekatzeke aukera ematen da, erabiltzaileen arteko interakzioa bultzatuz.

Bestalde, miatze jardueretarako proposatutako talde kooperatiboetan egin beharreko ariketak, taldean egiteaz gain, gainontzeko taldeekin partekatzea eskatuko da eta beraz lehen mailako lan kooperatiboa, bigarren maila batera igaroko da gela osoarekin partekatuta. Ikasleek egiten den guztia ezagutu, baloratu eta hausnartzeko aukera izan behar dute eta horretarako beharrezkoa da elkarlana eta partekatzea. Zenbat eta eredu gehiago izan, aberasgarriagoa izango da lanketa eta ikasketa.

Ondorioak

Hasierako lerroetatik hasita, idazmena nola ulertu behar den zehaztu da. Hizkuntza trebetasunen arteko hartu emanaz gain, idatzizko ekoizpenari bere testuingurua edo bere lekua eskaintzeak, ikasleen jarreraren eta motibazioaren eragina izan dezakeela ikusi da. Ataza hori IKTen bidez ere egin daiteke eta IKTek eskaintzen dituzten baliabideak aurrez aurreko saioen osagarri gisa erabil ditzaketela erakutsi da eta baliagarria izan daitekeela bai irakasleentzat, bai ikasleentzat.

Lan hau narrazioaren didaktikan oinarritu da, 2018-2019 ikasturtean egindako esku-hartzearen justifikazioa eta metodologia zein izan den azaldu da. Narrazio testuek dituzten ezaugarri eta egitura aztertzeaz eta lantzeaz aparte, ikasleei egoera edo proiektu bat aurkeztu zaie eta honen lanketarako baliatuko dan ikasgela birtualaren emaitza nabarmenenak erakutsi dira. Metodologiaren garapenean, gelan egindako jarduera eta lanketa azaldu da. Horrez gain, Edmodon egindako ikasgela birtuala, idazmenean izan duen lanketa eta eskaini dituen aukerak azaldu dira. Ikasgela birtual horrek berebiziko garrantzia izan du ikasleen parte hartzean eta berrikusketa sisteman, idazmena bakarkako lan batetik, kolaborazioan egitera.

Esku-hartzearen metodologia azalduta, beronen balorazioa egin da hurrengo lerroetan. Balorazioa egiteko erabili diren arloen emaitzek argi erakutsi digute komunikaziorako teknologiek eta zehatzago ikasgela birtualek eguneroko aurrez aurreko eskolez gain, ikasleen idatzizko adierazmenean ekar ditzaketen onurak; hala nola, ikasleen jarrera aldaketa idatzizko jardunean, akats sistematikoen identifikatzea eta hauen zuzenketa azken entrega egin aurretik, eta beste ikaskideen ekoizpenen irakurketaz aberastea. Halaber, irakasleek inkestan emandako iritziak ere, bide beretik joan dira. Edmodo baliabideaz eta honen erabileraz eta aukeraz emandako balorazioak positiboak izan dira oro har. Garrantzitsuenen artean aipa daitezke ikasleen

motibazioan eragina duela, komunikazio eta kooperaziorako espazioa dela, berrikusketarako tartea eskaintzen dela eta berrikusketa horretatik ikasleek euren akatsetatik eta besteenetatik ikasteko aukera dagoela.

Emaizta positiboak izanik, hurrengo ikasturtera begira, 2019-2020, sekuentzia didaktiko zehatzago eta garatuago baten proposamena egin da Bigarren Hezkuntzako lehen maila narrazioen testu lanketarako. Proposamen honetan, gelako jarduna Edmodo ikasgela birtualaren eta IKTen arteko uztartze sakonagoa proposatzen da, aukerak eta erabilerak ikusita, hauek ahalik eta gehien testuaren lanketan baliatzeko. Horrela, idatzizko ekoizpenean ikasleen jarrera, motibazio eta kolaborazioari garrantzia ematen zaie. Horrez gain, berrikusketari ere izan beharreko lekua eskaini zaio. Guzti hau, testuinguru eta testu errealetan egituratu da.

Laburtuz, azpimarratu behar da idazmenaren didaktikan eta hizkuntzen irakaskuntzan badagoela hausnarketa sakona egiteko beharra eta metodologietan aldaketa emateko beharra. Behar honi erantzuteko asmoz, egin da lan honetako idazmenaren lanketaren azterketa eta baita aurrera begirako proposamen didaktikoa ere.

Bukatzeko, lan honetan aitortu beharreko mugak izan dira, denbora faltagatik ikasturtearen zehar aurrera atera ezin izan direnak. Alde batetik, balorazioari pisu handiagoa emateko, ikasleei ere inkesta edo galdetegia pasatzea falta izan da. Hau, proposatzen den sekuentzia didaktikoa martxan jartzean, ezinbesteko atala izango da beronen ebaluaziorako. Horrez gain, ikasle zein irakasleek ikasgela birtuala lehenengo aldiz erabiltzeak, tresna honek eskaintzen dituen aukera guztien jabe ez izatea ekarri du eta ondorioz, esku-hartzeari atera ahal litzaiokeen etekina xumeagoa edo apalagoa izan da. Bestetik, egin den esku-hartzean eta baita sekuentzia didaktikoaren proposamenean, sintaxia eta ezaugarri testualen arteko lotura lantzea ez da planteatu; etorkizunera begira proposamena osatzeko egiteke egongo litzateke.

Bibliografia

Adam, J. M. (1987). Types de séquences textuelles élémentaires. *Les types de textes* N° 56, 54-79. ISSN 0338-2389

Adam, J. M. & Urkizu, Boni. (1996). Testu.motak. *Hizpide: euskalduntze - alfabetatzearen aldizkaria*, Año 14, N° 37, 62-72. ISSN 1136-5714, ISSN-e 2530-3287.

Cassany, D. (1990): "Enfoques didácticos para la enseñanza de la expresión escrita". *Comunicación, lenguaje y educación* 6, 63-80

Cassany, D. "La cultura de la escritura: planteamientos didácticos. Lineas para una didáctica de los procesos de composición", en: Cassany, D.; Martos, E.; Sánchez, E.; Colomer, T.; Cros, A.; Vilá, M. *Aspectos didácticos de Lengua y Literatura*. 8. Zaragoza: Universidad de Zaragoza. 1996, 11-46. ISBN: 847714528.

Eusko Jaurjaritza. (d.g.). Heziberri 2020 Plana. Hemendik jaso: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuantos/OH_curriculum_osoa.pdf

Holland, C. & Muilenburg, L. (2011). Supporting Student Collaboration: Edmodo in the Classroom. In M. Koehler & P. Mishra (Eds.), *Proceedings of Society for Information Technology & Teacher Education International Conference 2011* (pp. 3232-3236). Chesapeake, VA: AACE.

Jimenez Maia, J. (2009). *Ipuina lantzeko gida*. Hemendik berreskuratua: https://issuu.com/itxaurdi/docs/ipuina_lantzeko_gida

- Purnawarman, P.; Susilawati & Sundayana, W. (2016). The use of Edmodo in teaching writing in a blended learning setting. *Indonesian Journal of Applied Linguistics*, Vol. 5 No. 2, January 2016, pp. 242-252.
- Sáez, J. M.; Lorraine, J. & Yoshiro, C. (2013). Uso de Edmodo en proyectos colaborativos internacionales en Educación Primaria. *EDUTEC, Revista Electrónica de Tecnología Educativa*, 43. Hemendik berreskuratuta: <http://www.edutec.es/revista/index.php/edutec-e/article/view/329/65>
- Sáez, J. M.; Fernández Flores, M. & García Gonzalez, J. L. (2012). Descubriendo Edmodo: beneficios del microblogging en educación en adultos. *Campo abierto: Revista de educación*, ISSN 0213-9529, Vol. 31, Nº 2, 2012, págs. 53-70. Hemendik berreskuratuta: <https://core.ac.uk/download/pdf/72046372.pdf>
- Santurtziko Udal Euskaltegia. (d.g.) Euskara irakaslearen didakteka. Hemendik berreskuratuta: <http://didakteka.santurtzieus.com/index.php/Ekoizpena>
- Santurtziko Udal Euskaltegia. (d.g.) Euskara irakaslearen didakteka. Hemendik berreskuratuta: <http://didakteka.santurtzieus.com/index.php/Idazmena>
- Santurtziko Udal Euskaltegia. (d.g.) Euskara irakaslearen didakteka. Hemendik berreskuratuta: http://didakteka.santurtzieus.com/index.php/Idazmenaren_ikuspegi_didaktikoak
- Otegi, A. Imaz, O. Díaz de Ilarraza, A. Irukieta, M. Uria, L. ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 58, 77-84. <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>.